

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Noingo San Migel ikastetxe publikoaren inklusiorako gela interaktiboaren inaugurazioan izan da Hezkuntza kontseilaria

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak ikastetxearen eta familien erantzunkidetasunaren garrantzia azpimarratu du, behar bereziak dituzten ikasleak artatzeko orduan

Asteartea, 2017.eko abenduak 12

Noingo San Migel ikastetxe publikoan izan da Hezkuntza kontseilaria gaur, inklusiorako gela interaktiboaren inaugurazioan. Behar bereziak dituzten ikasleak artatzeko gelan ikasle guztien inklusioa lantzen da.

"Inclusive Smart School" edo gela interaktiboan tresna teknologiko berrien bidez

ikasleek ezagutzen aurrera egiten dute, jolasen bidez. Ordenagailuak, ukimenezko mahai interaktiboa, kinect eta tabletak daude gelan, jolasaren bidez eta modu kolaboratiboan hainbat materia lantzeko. Hezkuntza kontseilariak "mugarritzat" jo du Noingo gela interaktiboa, inklusioa lantzeko moduagatik. "Agerikoa da familia eta ikastetxeen artean sintoniaren eta erantzunkidetasunaren isla dela proiektua", gehitu du Solanak.

Hezkuntza behar bereziak dituen ikasle baten beharrei erantzuteko asmo batetik sortutako egitasmoa da Noingoa eta hezkuntza erantzunak ikuspegi inklusibotik artikulatzeko balio izan du, kontseilariak gogoratu duenez. Solanak, gainera, aintzat hartu nahi izan du "ikastetxe publikoak egiten ari diren esfortsu eta lana ikasleen kalitatezko hezkuntza ontzeko". Horren adibide nabarmena da Noingoa; izan ere, gela interaktiboa aniztasunari erantzuteko plan estrategikoak jasotzen dituen ildoan ari baita inklusioa sustatzen.

Inaugurazioan, hezkuntza kontseilariarekin batera, izan dira San Migel ikastetxeko zuzendari Juan Carlos Turumbay, Noingo alkate Alberto Ilundain, DRAVET fundazioko lehendakari Ainhoa Pariente eta MTorres Fundazioko ordezkari Eva García.

Juan Carlos Turumbay Noingo ikastetxe publikoko zuzendariak azpimarratu egin du erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana ikasleen aniztasunari erantzuteko, "apustu garrantzitsua da ikasle guztien beharrezanean erantzuteko". Gaur egun era honetako bi gela daude sare



Maria Solana gela interaktiboan gainontzeko ordezkariarekin batera.

publikoan: Donostian bat eta Noainen bestea. Ido horretan, Noingo alkateak ere elkarlanaren alde jarraitzeko premia utzi du agerian. Nafarroako gobernuarekin eta Noingo udalarekin elkarlanean aritzea oso garrantzisa dela gehitu du MTorre Fundazioko ordezkariak. Dravet fundazioko lehendakariak, bestalde, esan du proiektu honek gainerako ikastetxeentzako ispilu izan beharko lukeela. "Gaixotasuna edo aniztasun funtzionala ezin dira hezkuntza inklusiorako oztopo izan".

DRAVET sindromea

Epilepsia miokloniko gogorra da DRAVET sindromea, jatorri genetiko duen gaixotasuna, kanalopaten familiakoa, eta gaixoen %75ek CSNIA genearen mutazioren bat dauka. 4 eta 12 urte bitartean agertzen den gaixotasuna da, baina 2003ra arte ez zen ezagutu berau antzemateko test genetikoak. Jaiotzen diren 20.000 haurretatik batek duela esaten da.